

OINARRIAK

"KULTUREN ARTEKO I. ARGAZKI LEHIAKETA"

I. DEIALDIAREN XEDEA

Lehiaketak 'Kulturen arteko I. Argazki Lehiaketa' du izena, eta Lantziegoko udalerriko aniztasuna eta kulturen arteko bizikidetza ikuspegi berritzaile batetik erakustea du helburu, sormena sustatuz eta argazkigintza komunikazio-elementu gisa erabiliz. Kulturartekotasunaren forma eta adierazpen anitzak adierazten dituzten Lantziegoko irudiak bilatzen ditugu. Lehiaketako argazki onenen aukeraketa egingo da 2020-2021erako kulturen arteko hurrengo egutegia osatzeko.

II. PARTE HARTZAILEAK

Adinez nagusiak eta adingabeak har dezakete parte lehiaketa honetan. Adingabeek beren legezko tutoreek sinatutako idatzizko baimena aurkeztu beharko dute. Antolatzaileek ez dute onartuko adingabeen parte-hartzea baimenik gabe.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiz onartzea dakar.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 2 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Parte-hartzaileek, aurkeztutako obraren jabetzari dagokionez, lehiaketaren baldintzak betetzen dituztela bermatzeko ardura dute legez. Lehiaketaren antolatzaileek gaiarekin bat ez datozen edo aurrez ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten argazkien parte-hartzea baztertzeko eskubidea dute.

III. ARGAZKIEN GAIA ETA FORMATUA

Aurkeztutako argazkiek "aniztasuna eta kulturen arteko bizikidetza" izango dute gai nagusi, kulturen arteko balioa azpimarratzen eta islatzen dituzten argazkiak bilatzen ditugu.

Egilearen ardura izango da lehiaketara aurkeztu dituen argazkietan identifikatu daitezkeen pertsonen baimen esplizitua lortzea

Lanak originalak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dute. Azken baldintza hori justifikatzeko, egilearen zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da aurkeztutako dokumentazioarekin batera. Nolanahi ere,

kalitate artistikoa eta teknikoa, sormena eta originaltasuna, eta gaiarekiko egokitasuna baloratuko dira.

Argazkiak formatu honetan aurkeztu beharko dira:

Formatu digitalean bakarrik aurkeztu ahal izango dira lanak eta JPEG formatuan izango dira. Irudiek A3 tamainan erreproduzitzeko adinako kalitatea izatea baloratuko da. Irudi bakoitzak 10 MB izango ditu gehienez. Argazkiek ez dituzte bazterrak, markoak edo ertzak izango.

IV. AURKEZTEKO EPEA

Argazkiak abenduaren 15tik 2020ko **martxoaren 31ra** aurkeztu ahal izango dira.

Artxiboak posta elektronikoz bidaliko dira helbide honetara: **entretanto.jolasean2@gmail.com**, "Lantziegoko Kulturen arteko Argazkien I. Lehiaketa" gaiarekin. Honekin batera, datu pertsonak (izen-abizenak, helbidea, , harremanetarako datuak) eman beharko dira. Nahi izanez gero, izenburu bat gehitu ahal izango zaio aurkeztutako argazkiari.

VII. SARIAK

Kategoria bakoitzeko sari bat ezarriko da:

- **Haur-kategoria (0-12 urte):** Fujifilm Instax Mini 9 berehalako kamera edo antzekoa, osagarriekin.
- **Nerabeen kategoria (12-18 urte):** Bideo kamera GoPro Hero (2018) edo antzekoa.
- **Helduen kategoria (18 urtetik aurrera):** Tablet Samsung TAB A 10'5'edo antzekoa.

VIII. EPAIMAHAIA

Epaimahaia pertsona hauek osatuko dute:

- Berberana aldizkariaren ordezkari bat.
- Hezkuntza-komunitatearen ordezkari bat.
- Lantziegoko bizilagun ordezkari bat.
- Lantziegoko ikastolako guraso-elkartearen ordezkari bat.

Epaimahaia osatzen duten pertsonak ezingo dute lehiaketan parte hartu.

Epaimahaiaren balorazioaren aurrean aurkeztutako obren anonimotasuna bermatuko da.

IX. EPAIMAHAIAREN EPAIA ETA SARI BANAKETA

Epaimahaiari, lanak aurkezteko epea amaitutakoan, proposamen guztiak e-mailez helaraziko zaizkio. Epaimahaiaren erabakia 2020ko apirilaren 20a baino lehen hartuko da.

Irabazleei posta elektroniko/telefono bidez jakinaraziko zaie.

X. ERAKUSKETA

Argazki onenekin erakusketa bat egingo da eta Lantziego udalerriko Kulturarteko egutegi bat osatzeko erabiliko dira.